

Bezeroarekiko harremanak

Gure dendetako saltzaileak izango dira bezeroekiko harremanen erantzule nagusienak, izan ere, beraiekin dira bezeroarekin erlazio zuzena izango dutenak. Erlazio horretan hauxe da saltzaileek eskeiniko dutena:

- Laguntza: Dependienteek, bezeroei lagunduko diete ahal duten guztian, beti haiei laguntzeko, adibidez, produktu bat bilatzen dendan edo galderak erantzuten.
- Tratu ona izateko alegina egingo dute, beti modu atseginean eta errespetu osoz zuzenduz bezeroarengana.
- Zerbitzu pertsonalizatua: Jakinda bezero bakoitzak bere nahiak dituela, bezero bakoitzari zerbitzu pertsonalizatu bat eskeitzen saiatuko dugu. Haien beharrak, nahiak eta gustuak kontuan hartuta. Horrela, bezeroarekin tratu hurbilago bat lortzea lortu dezakegu.
- Zerbitzu profesionala: Enpresaren barnean modan adituak diren pertsona asko daude. Horrela, gure arropa beti erakargarria izango da bezeroentzat.

Bezeroarekiko harremana aurrez aurre, gmailen bidez, interneten bidez edo telefonoz izango da. Aurrez aurreko harremana denda fisikoan izango da, interneten bidez webgunean eta telefonoaren bitartez. Hala ere, produktuari publizitatea egiteko sare sozialak erabiliko ditugu. Horren bidez, gazteengana hurbilduko gara eta publizitaztea egingo dugu. Marketing modu erabilgarrienetarikoa da garai honetan.

Bezeroak hiru talde desberdinetan banatuta daude. Hasteko, 18-40 tartekoak lehenengo taldea osatzen dutenak dira. Talde honekoekin, harremana mantenduko dugu, gehien bat, web orrialdearen bidez. Oso lagungarria izango da web orrialde on bat izatea, honek diru sarrera batzuk eskeiniko dizkigulako, beraz, web orrialdea era egokian egotea oso lagungarria izango zen bezeroentzat. Bertan, adibidez, beherapenak jarriko genituzke. Era berean, web orrialdean inskripzio bat dutenek, beherapen finko bat izango luketeen. Hau da, beti eta arropa guztietan %0,1 beherapena izango luketeen. Honela, eskaria igotzea lortuko genuke.

Ondoren, 40-65 tartekoak daude. Hauekin batez ere aurrez aurreko harremanak izango ditugu, baina askotan ere, interneten bidez, telefonoz eta gmailez izan ahal da.

Bukatzeke, 65+ urte daukatenak. Hauekin ia beti harreman fisikoa izango dugu. Ondo antolatuta egongo da ondo bilatu ahal izateko nahi dutena. Gure langileak beti egongo dira prest laguntzeko.

Gure produktutan konfiantza dutenentzat eta erostea erabakitzen duten pertsonentzat, bermeko zerbitzu bat izango dugu haientzat. Bermeko zerbitzua jasotzeko, bakarrik, bi baldintza egongo dira. Alde batetik, produktua erabilia ez egotea. Bestetik, arropa era egokian bueltatzea. Baldintza hauek betez gero, autatzeko bi aukera egongo dira. Dirua berreskuratu edo ticket bat hartu beste arropa bat jaso ahal izateko.